



Auzoak bizirik, herria bizirik

Antolaketak lana eta burukominak eman arren, auzoetako jaiak Andoaingo gizarte bizitzaren neurgailu bilakatu dira / 6-11

Etenik gabeko informazio zerbitzua

Astekaririk ezean, Aiurri.eus webgunean eta sare sozialen denbora lerroan etenaldirik ez da izan. Jaiak, albisteak, multimedia atala eta agenda dira gehien berritu direnak.



Larunbatean zikiro jatea Sorabillan, eta iganderako egun osoko ospakizunak iragarri dituzte / 14

Kalegiroan zikloak jarraipena izango du irailean, kalean egingo dituzten bi ikuskizunekin / 15

Musika Hamabostaldiaren elkartasunezko emanaldia Sorabillan / 5



Udako lasterketen sailkapenak eta argazkiak. Urriaren 12an lasterketa berria Urnietan / 5, 12-13



Ingeles Eskola. Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoainen

ZER ESKAINTZEN DUGU?

- Haur, gazte nahiz helduentzako eskolak.
- Cambridgeko PET-FCE-CAE-CPE azterketatarako prestakuntza, adin guztietako ikasleentzat.
- Enpresei zuzendutako eskolak.
- Eskola partikularrak.

- Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.
- Zeelanda Berrira bidaia helduentzat, bertako gidariarekin, 2020ko abuztua eta irailan.



20 URTE baino gehiagoko esperientzia

Ondarreta, 7 behea. ANDOAIN. 943 300 839. www.andoainenglish.com



Bukalai dantza taldeko dantzariak iazko Elbarrenako jaietan eskaini zuten dantza saioaren osteko argazkia Joxe Arregi plazan. AIURRI

Bukalai taldeak lehertuko du jaia

BUKALAI DANTZA TALDEKO BATZORDEA DANTZARIEN GURASOAK

Irailaren 8an urtean zehar ikasitako dantzak erakutsiko dituzte, Joxe Arregi plazan eguerdiko 12:45ean hasiko den emanaldian. Hiru egun lehenago euren izango da jaiari hasiera emateko ardura, eta ohorea

Olatz Lasa ZIZURKIL

Aiztondo bailarako udako festak amaitzeko, Zizurkilgo Elbarrena auzokoak falta dira. Poztasunarekin batera, urduritasuna ere nagusitzen da, ikasturte berria iristear denaren seinale baitira festa horiek. **Andramariak amaituta, Elbarrenako txanda da orain. Nabari al da festan jarraitzeko gogo?**

Jendea gustura egoten da Elbarrenako jaiari itxaroten. Zizurkil Goikoekin alderatuta ezberdinak dira. Oporren bukaera eta ikasturte berriaren hasiera da, horregatik jende ugari biltzen da festetan.

Eta jaia lehertzearen ardura zuena da...

Harrituta gaude, sorpresaz harrrapatu baikaitu. Polita da eta pozik gaude.

Gu ez gara igoko txupina jaurtitzera, dantzariak emango diegu protagonismoa, ea animatzen diren.

Jaietako igandean eskainiko duzue dantza emanaldia plazan. Nolako izango da?

Ikasturtean zehar ikasitako dantzen laburpena izango da. Egun, 95-100 dantzari inguruk osatzen dute Bukalai dantza taldea, lau urtekoetatik hasita hemezortzi urte ingurura arte. Taldetan banatuta daude, eta talde bakoitzak bi dantza eskainiko ditu. Gutxi gora-behera ordubete pasatzeko saioa izango da.

Noiz eta zergatik sortu zen Bukalai dantza taldea?

Aspalditik dator, baina denboraldi batez etenaldia izan zuen jendea taldea uzten joan zelako. 35-40 urte inguru izango dira;

eta berriro ere martxan jarri zela hamar bat urte. Etenaldia egon zen tarte horretan udalak dantza ikastaroak antolatu zituen euskal dantzak ikasteko eta Ibarrako Allur dantza taldeko dantzariak ekarri zituen irakasle.

Egun nortzuk dira irakasleak?

Lau irakasle bertako ikasleak dira, eta beste lau Ibarrako Alur dantza taldekoak. Irakasle batzuk herrikoak izanda, txikienek ikusten dituzte beren

eredu diren herritarrek eta horrek ere indarra ematen die. Ondo legoke mutilen bat ere irakasle izatea.

Mutil gutxiago animatzen da dantzara orduan...

Askoz ere gutxiago. Txikien taldean parekatuago daude neskak eta mutilak helduen taldean baino. Helduen taldean, hamaseititik hemezortzi urte bitartekoetan, ikasketek dute eragina. Mutilak dantzara gerturatzea da gure erronka, fut-

"MUTILAK DANTZARA ANIMATZEA DA GURE ERRONKA, FUTBOLAK INDAR HANDIA BAITU ORAINDIK"

"AZAROAN DANTZARI EGUNA OSPATUKO DUGU ETA EMANALDI BEREZIA IZANGO DA HERRIKOENTZAKO"

bolak indar handia baitu oraindik.

Gaztetxoek nola bizi dute urtean zehar ikasitako dantzak jaietan plazan familiaren eta lagunaren aurrean erakustea?

Emozioz eta urduritasunez. Izugarrizko ilusioa egiten die. Jaietan da, beraiek dira protagonista eta beren herrian daude. Familiako kideak etortzen dira; gurasoak, aiton-amonak... Gainera, igandearekin izaten da emanaldia eta horrek jende gehiago etortzea ahalbidetzen du.

Urtean zehar hiru emanaldi eskaini ohi dituzte: San Juan bezperakoa, Elbarrenako jaietako eta Olentzoreren eta Mari Dominginen etorrakoa. Zein da denetan bereziarena?

Ezberdina da adin tartearen arabera. Maiatza inguruan Zizurkil Goian gauez eskaintzen dute emanaldia, eta hori da helduenentzat denetan garrantzitsuena. Txikienentzat, berriz, jaietako da bereziarena.


Bestalde, azaroan dantzari eguna ospatuko dugu. Herrikoentzako emanaldi berezia izango da, eta herri txikietako dantza taldeak gonbidatuko ditugu.

Zer dute berezi Elbarrenako jaiak? Zizurkil Goiko jaiak eta Elbarrenakoak oso ezberdinak dira. Bakoitza bere auzoak erakartzen du, zure bailarakoak ezberdin bizitzen dira.

Elbarrenako jaien berezitasuna kuadrillen parte-hartzean dagoela esan daiteke. Kuadrilla guztiek dute jaietan egitekoen bat, oro-har, bluxa guztiek hartzen dute parte.

Gainera, Elbarrena ondo dago komunikatuta Andoaínekin, Tolosarekin eta Villabonarekin eta horrek jende gehiago erakartzen du.

Egunean eguneko albisteak sarean



Albisteak



Argazki-bildumak



Bideoak

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



ELBARRENAKO JAIK IRAILAREN 4TIK 9RA

IRAILAK 4

ASTEAZKENA

19:00 Zizurkilgo XII. Kros Mistoa. Ondoren barrikotea Joxe Arregi plazan.

IRAILAK 5

OSTEGUNA

19:00 Marrazki lehiaketa. Erakusketaren irekiera eta sari banaketa Plazida Otaño.

20:00 Txupinazoa eta Melokotoiaren aurkezpena, herriko Bukalai dantza taldeari eskainita. Ondoren, buruhandiak eta JunDaJo txaranga.

21:30 Herri afaria Atxulondo eta Pásus jatetxeen eskutik. Ondoren, txaranga.

02:00 Karaokea.

IRAILAK 6

OSTIRALA

11:30 Dantza gidatua haurrentzat.

14:30 Gazte bazkaria, Joxe Arregi plazan.

17:00 Zirika Zirkus antzerki taldea, Aurrera plazan. Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

18:00 Elektropapo elektrotxaranga.

21:30 Gazte bokata-afaria.

22:40 Zezen suzkoa.

23:00 Kontzertuak: Meliora, La Desbandada eta Anita Parker.

IRAILAK 7

LARUNBATA

11:00 Haur tailerrak. Ondoren, buruhandiak Joxe Arregi plazan.

14:00 Herri bazkaria. Jarraian, postre lehiaketa, bingo musikatua eta Psiko hiltzailea.

20:00-21:30 Dantzaldia: Gabezin.

23:30 Dantzaldiaren jarraipena.

00:00 Mozorro lehiaketa eta Psiko hiltzailearen sari banaketa. Ondoren, DJ Gabxet eta DZ.

IRAILAK 8

IGANDEA

08:00 Diana.

11:00 Sardina eta sagardo dastaketa.

12:45 Herriko Bukalai taldearen "Euskal Dantza" ikuskizuna, Joxe Arregi plazan.

16:00 Joxe Arregi Mus txapelketa.

16:30 Erraldoiak eta buruhandiak.



Ogitarteko iluntzea, bakoitzak berea ekarrita.

21:30 Putinen Guardasola antzezlan.

IRAILAK 9

ASTELEHENA

11:30 Ur eta kolore festa.

13:30 Jubilatuen jolasak, Elizpe jubilatuek antolatuta.

13:30 Buruhandiak, Joxe Arregi plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

16:30 Dantzaldia.

18:30 Patata-tortilla lehiaketa.

20:30 Melokotoi sariak.

22:00 Bertso-saioa: Amets Arzallus, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Miren Arretxe. Gai-jartzailea: Igotz Alkorta.

Argazkiak, bideoak eta egitaraua www.aiurri.eus webgunean



• **Elbarrenako jaien jarraipena klik bakarrera**

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornoan lan egiteko

Interesatuak bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute:

Talleres Mitxelena, S. Coop,
Ezago poligonoa 21, 20120 Hernani
2019/09/20 baino lehen

info@talleresmitxelena.com

mitxelena
LARGE SCALE CUSTOM MACHINING

IZAN KONFIANTZA GUGAN!

**ACADEMIA IDIOMAS
G.F ANDOAIN**
Tel.: 943 591 508

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Ondo pasa festetan!

www.academiagfandoain.com

- Gure ardatza Cambridge azterketak dira.
 - Maila guztiak: STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET, FIRST, CAE...
 - 2019ko uztailera deialdian, FCE 17tik 15 ikasle gainditu. CAE eta PROFICIENCY azterketatan %100 gainditze tasa.
 - STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET azterketatan %100 gainditze tasa.
 - Taldeak goiz eta arratsaldean.
 - Talde txikiak.
 - Speaking klaseak.
 - 4 edo 5 urtetik aurrera.
- Galardi 10, 1A etorri edo deitu**

Klasikoek hartu zuten Zizurkil, igandean

JOSEBA MENDIZABAL ANTOLAKUNTZA

Bigarren urtez antolatu da auto eta motor klasikoen topaketa. 30 urtetik gorako autoak eta motorrak ikusteko aukera egon da, tartean 20. hamarkadako autoak



Joseba Mendizabal bere bost auto klasikoetako baten ondoan, auto eta motor klasikoen ibilaldia abiatu ostean. AIURRI

Olatz Lasa ZIZURKIL

Joseba Mendizabal zizurkildarra dago auto eta motor klasikoen antolakuntzaren atzean. Berak ekarri du Zizurkilera topaketa, eta hurrengo urteetan ere Elbarrenako jaien luzapena izaten jarraituko duela adierazi du. Jaiak dagokienez, aurtengoan ez da jai batzordean egon.

Zer moduz joan da aurtengo auto eta motor klasikoen topaketa?

Ondo. Oso gustura. Aste osoan zehar eguraldi txarra zegoen iragarrita eta azkeneko ordura arte ateri mantendu du. 13:00etan genuen azken proba, motorren azelerazio proba, eta eskerrak ez duen euririk egin, gainontzean partaide gutxiago etorriko baitzen.

Zenbat auto eta motor klasiko ikusi ahal izan dira?

Zenbaketa osoa ez dut egin, baina 60 auto inguru eta motorrak beste hainbeste izango zirela uste dut.

lazko datuekin alderatuta antzeko mantendu al da?

Fraisororako motorren igoeran, motor klasikoek danbordunak

izan behar zuten. Horregatik igoeran bai izan direla iaz baino gutxiago, eta azkeneko ordura arte eguraldi txarra iragarrita zegoenez parte-hartzaile gutxiago etorri da. Hala ere, guztiek oso ondo pasa dute eta ondo atera da.

Nondik dator motorren topaketa Zizurkilera ekartzearen ideia?

Zizurkildarra naiz, eta motorren eta autoen afizio handia dut, batez ere klasikoena. Orain dela 30 urte inguru mobileten lasterketa egiten zen Fraisorotik gora. Ekimen hura berreskuratzeko aldera, danbordun motor guztietara zabaldu dugu.

Motorren erakusketari dagokionez, lehen Aitor Goikoetxearen omenezko karren proba ere egiten zen Zizurkilen barrena, eta hori kontuan hartuta erabaki da motorren erakusketa egitea.

Etortzen diren autoetatik eta motorretatik, zein da ikusleei arreta gehien pizten diena?

Aurten ere auto zahar-zaharrak etorri dira, adibidez, 20-30-40ko hamarkadakoak. Ikusgarriak horiek dira. Seat 600 modeloko autoak, esaterako, egunero ez baina tarteka ikusten dira errepidean, baina aipatu ditudan horiek oso zailak dira ikusten horrelako aukeretan ez bada.

Azkenean ate asko joz, hamarkada horretako zortzi edo hamar auto klasiko inguru ekartzea lortu da.

"ORAIN DELA 30 URTE MOBILETEN LASTERKETA EGITEN ZEN FRAISOROTIK GORA"

Bigarren urtea da topaketa antolatzeko delat eta jada Elbarrenako jaiak luzatzeko aitzakia bihurtu da.

Bai, hori da. Jaiak irailaren 4an hasiko dira, eta aurrez, larunbatean emakumeen errugbi taldeko festa izan zen, arratsaldean kontzertua... Oso egun polita izan zen. Igandean, berriz, auto eta motor klasikoen topaketa. Jada festa giroan sartuta gaude, eta asteazkenetik aurrera festa izango da nagusi.

lazko jaietan gaztetxoentzako goitiberak antolatu zenituzten.

Lastima da, baina aurtengoan ez da goitibera jaitsierarik izango festetan.

Jaietako zein egun izaten da politena?

Arantzazuko Ama Birjinaren eguna irailaren 9an izaten da, astelehena aurten. Aurreneko egunean kros mistoa edukiko dugu, ondoren barrikotea, osteguneko herri afaria egingo dugu, ostiralean eta larunbatean kontzertuak egongo dira eta mozorro gaua ere ospatuko da. Igandea ere egun polita izaten da eta astelehen a, berriz, lasaieagoa, asko lanera joanak izango baitira.



Irudi gehiago ikusteko, eskaneatu QR kodea zure mugikorrean.

"AURTEN ETORRI DIREN AUTO ZAHARRENAK 20-30-40KO HAMARKADATAKOAK DIRA"

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula irekita irailaren 3tik 20ra

Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza.

Moduluak: astean 2 edo 4 egun.

Eta azterketak: HABE, PERFILAK, EGA...

Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

19/20 ikasturtea

Egin gurekin bat!



HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

Karobieta auzoa, 63
(anbulatorio zaharra)
HERNANI
Tel.: 943 33 18 96
euskaltegi@hernani.eus

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

XABIER HUITZI BELAMENDIA ANDOAIN

Musika hamabostaldia



Julia Blanco, Facundo Guerrero eta Sarah Pérarnaud, Sorabillan. XABIERHUITZI

Aiurri komunitatea

Abuztuak 1, osteguna / ANDOAIN

Caritas eta Musika Hamabostaldiak elkarrekin atondutako "Hamabostaldi Solidario"-aren lehen kontzertua eskaini dute Andoaingo Sorabillan, musikarekin batera, ahaztu ezin ditugun pertsonak ekartzeko gogora, inoiz ahantz ez ditzagun.

Eguraldiak euriaren mehatxupearan eduki gaitu egun osoan eta antolatzaileek, harrera etxeko belardian ez, baizik eta elizako aterpea atondu dute okasiorako.

Julia Blanco (sopranoa) eta Facundo Guerrero (tenorra), biak Musikeneko kantu-ikasleak izan dira egitaraua garatzearen arduradun, Sarah Pérarnaud pianojole gazteak lagundu ez ezik, babes egokia eskaini duelarik, kontzertu guztian osotasun sentsazioa

eskainiz emanaldiari.

Bakarka nahiz bikoteka aritu dira abeslariak eta errepertorio anitz eta erakargarria eskaini dute ia 45 minutuz luzatu den kontzertuan.

Amaitzeko esan, lepo bete dela Sorabillako eliz-ataria eta kontzertuaren amaieran, Caritaseko harrera-etxeko gazteek saharar herrialdeetan ohi den bezala, adiskidetasun tea eskaini die etorri direnek elkarrekin eta artistekin komentatu ahal izateko beren inpresioak.

Bikaina egitasmoa eta hurrengo baterako horrelako beste hitzordurik ere izan dezagun desio bizia izan dugu guztiok. Zorionak antolatzaileei, artistei, bertaratu direnei eta Caritaseko arduradun, hezitzaile eta gazteei hain harrera abegitsua egiteagatik.

DEIALDIA

EKIMENA URNIETA

Elkartasuneko krosa Urnietan, Asier Niebla herrikidea gogoan

Urriaren 11n urtea beteko da Asier Niebla hil zenetik, eta bere lagunek oroimenezko lasterketa antolatu dute.

Urnietako Udalaren babesarekin, herrikidea gogoan hartu eta justizia eskatuko dute. Ezagun denez, Niebla abuztuaren 12an Donostiako Alde Zaharrean eraso matxista bat jasan, eta bi hilabetez koma egoeran egon ondoren, hil egin zen.

Urriaren 12an herri lasterketa egingo dute Urnietan. Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte. Alde batetik, lehiatu nahi ez duenarentzat eta oinez egin ahal izango dena. Ibilbide hori bi kilometrokoa izango da. Bestalde, lehiatu nahi dutenentzat, 7,5 kilometroko

ibilbidea prestatu dute. Biak ala biak, plazan hasi eta bertan amaituko dira.

Izen-ematea

Lasterketan edonork har dezake parte. Interesa duenak www.kirolprobak.com atarian izena eman dezake, urriaren 4ra bitarte. Lehiaketako lasterketan parte hartzen dutenek 8 euro ordaindu beharko dute, eta ibilbide motzean irten nahi dutenek, ostera, 5 euro.

Izena ematearekin batera, partaide bakoitzari kamiseta bana emango zaio. Asmoa, parte-hartzaile guztiek kamiseta hori janztea eta lasterketaren amaieran San Juan plazan argazki erraldoia ateratzea da.



Asier Niebla. NIEBLASENDIA

Lasterketa urriaren 12an izango da, arratsaldeko 16:00etan hasita. Antolatzaileak egun bereko 12:00etatik aurrera plazan izango dira kamisetak eta dortsalak banatzen.



Aiurri eskuragarri:
Ebeze etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 38 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia.
idaizkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zera Multimedia.

AIURRIk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: ERROITZ KALITATE MUGATUA	ALJATUAK: TOKIKOM
BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA: ANDOAINO UDALA Urnietako Udala	
DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA: Euzko Legebiltzarra Gipuzkoako Foru Aldundia	
ZIURTAGIRIA: BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.	



Haur krosaren ondoren omenaldia jaso zuen taldea, Etxeberrietako jaietan. 70eko hamarkadan atletismoan jardun zuen lehen emakumeen taldea osatzeagatik egin zitzaizen aitormena. AIURRI

Bi egun bikain Etxeberrietan

Etxeberrietako jaietan hitzordu guztiek izan zuten erantzun ona ikusita, indar eta ekimen guztia bi egunera mugatzera ez da aukera txarra izan. Auzotarrek bi egun eder igaro zituzten, uztailari amaiera eman zien San Inazio jaietan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Iazkoan bost eguneko ospakizunak antolatu zituzten, eta aurtengoan egitarau osoa bi egunetan metatu zuten. Aldaketak mesede egin diola dirudi, bi egunetan zehar jai eremura auzotar eta herrikide asko hurbildu baitzen. Lehen eguneko haur jolasetan edota haur ikuskizunean antzeman zitekeen hori. Herrikideen gerturatze hori biderkatu egin zen arratsalderako, dozenaka andoaindar hurbildu baitzen auzoen arteko sega desafioaz goatzera.

Kirol lehia izan bazen ere, euskal kirolaren inguruko ospakizuna izan zela esan daiteke. Desafioa amaitzen ari zela, danborradak bere ibilbide klasikoa egiteari ekin zion. Aita Larra mendikaleetik Belabi aldera, eta Txitibar plazatik berriro Etxeberrietako jai gunera. Danbor eta txaranga doinuaren artean, afaria egiteko parrilla prestatzen ari ziren.

Azpiegitura jai batzordeak ipini zuen, eta afaria norberak bere etxetik ekarri behar zuen. Proposamenak harrera ona izan

zuen auzotarren aldetik, asko izan baitziren uda giroko afariaz goatzera hurbildu zirenak.

San Inazio egunaren hasieran herritar asko gerturatu zen Eula, Zabala, Gaztañaga, Otsua-Enea eta beste zenbait sagardogileren edaria dastatzera.

Sukaldean pintxo ugari egin zituzten, sagardo edalontziarekin batera banatzeko. Auzo bazkaria azken urteetako bidetik joan zen, eta dantzaldiarekin eta sardinen jatearekin eman zieten amaiera parte hartze handiko jaietara.



Pako Arnaizek saria jaso zuen, omendu guztiak ordezkatzuz. AIURRI



Garai batean janzen zuten elastikoak ekarri zituzten omenduek ekitaldira. AIURRI



Jolasak eta margoketa lehiaketa Etxeberrietako jaien hasieran.



Parrila denen eskura jarri zuten.



Sagardo dastaketan lanean aritu ziren hainbat kide.



Jaiaren hasierako argazkia, ikurriña jarri eta berehala.



Auzo afarian parte-hartze handia izan zen.



Sagardo dastaketara auzotar eta herrikide ugari bertaratu zen.

Sega desafio ikusgarria Etxeberrietako Miranda pasealekuko zelaietan



Malou Henriksenek jaso zuen txalo gehien, sega desafioan.



Etxeberrieta auzoa jaun eta jabe. Segalaria Unai Larrarte izan zen.



Buruntzako taldea, bigarrena. Segalaria Mikel Jauregi izan zen.



Goiburuarrek lehenak izan ziren desafioko lehen txandan.



Santa Krutz auzokoen izenean Antton Arruti izan zen segalari.



Sorabillako auzoa ordezkatuz Xabier Lasa aritu zen segan.



Oilasko biltzea auzotarren ospakizuna izan ohi da, San Inazio egunez egiten dutena. Abuztuaren 1etik 4ra ospakizun gehiago izan zen Goiburuko frontoiaren pareko plazarxoan. AIURRI

Jaien hasiera auzotarrentzat

San Inazio egunez, Goiburuko auzotarrak baserriz baserri ibili ziren. Talde handia bildu zen, eta aurten bereziki gaztetxoek parte-hartzea nabarmendu behar da. Auzoan oilasko biltzaileen tradizioa belaunaldiz belaunaldi transmititzen ari da

Xabier Lasa ANDOAIN

Miren Lopez de Munain jai batzordeko kidea da, eta uztailaren 31ko erromerian jaiei buruz jardun zuen Aiurri astekaria-rekin.

Suziriek iragartzen duzue zuen irteera, oilasko jokoan...

Goizeko 06:00etan abiatu eta auzoan barrena baserriz baserri ibiltzen gara. Dantza pixka bat egin, musika eskaini eta eurek jateko eta edateko ematen digute. 15:30erako amaitzea izaten da gure esperantza, hori izaten da asmoa. Bazkaldu, eta arra-

tsaldean gure ospakizunari ekiten diogu.

Belaunaldi ezberdinetako jendea aurki daiteke zuen artean...

Zortea dugu. Lehendik gurekin zetozen adinekoek parte hartzen jarraitzen dute, eta aurten lehenbiziko aldiz gazte dexente irten da. Etorkizuna badugula esan nahi du horrek. Hurrengo urteetan jarraitzeko aukerak badaudela ikusten da. Gustura gaude, bai.

San Esteban jaiak ospatzen dituzue, baina San Inazio egunean oilasko jokoa egiten duzue...

Guk geuk gozatzeko ospakizuna izaten da. Aurtengoan auzoko jaiak ostiralean hasi eta igandera bitarte luzatuko dira. Egun horietan besteentzat lan egitea egokitzen da. Gozaten dugu, baina beste era batera.

"GAZTE DEXENTE IRTEN DA AURTEN. ETORKIZUNA BADUGULA ESAN NAHI DU HORREK"



Gazteak izan dira aurtengo protagonistak. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Auzotar askoren lanari esker antolatzen dira jaiak Goiburun.



Auzoko plazatxoan bazkaltzeko aukera izan zen, egun ezberdinetan.



Sagardo dastaketa, igande arratsaldean.



Auzolana, San Esteban jaietako gako nagusia.



Trikiti doinuak, ezinbestekoak Goiburuko jaietan.



Jendetza hurbildu zen Goiburura, igande arratsaldean.

Traktoreari tiraka Goiburun, auzoen arteko herri kirol lehiaren hirugarren proba



Sorabillarrak izan ziren azkarrenak, Goiburuko proban. AIURRI



Goiburu taldeko kideak izan ziren lehenak parte hartzen. AIURRI



Haxe izan zen traktore gainean eraman beharreko "karga". AIURRI



Buruntzarrak Goiburun, ahalegin betean. AIURRI



Santa Krutz taldeko laukotea, Goiburuko proban. AIURRI



Etxeberrietako taldea, probari ekin aurretik. AIURRI



Buruntza auzoko batzordekideek jaiak antolatzeaz gain, herri kiroleetan jarduteko denbora ere hartu zuten. **AIURRI**

Lehia ospakizun bilakatuta

Lehia sana eta lagunartekoa izaten ari da auzoen artekoa. Iaz ekin zioten hitzordu sortari, eta aurtengoan jarraipena izan da. Herrikide ugari bertaratu da hitzordu guztietara. Buruntzan, esaterako, giro ederrean ospatu zen auzoen arteko herri kirol lehia

Xabier Lasa ANDOAIN

Kirola eta festa giroa bikain uztartu zituzten Buruntzako jaietan jokatu zen Andoaingo auzoen arteko lehiaketan. Toka, zaku karrera eta karretilla lasterka eramatea izan ziren jokoan jarri ziren frogak, eta horietan Buruntza auzoko kideak izan ziren trebeenak. Jende mordoxka bildu zen lehia ikustera eta parte-hartzaileak animatzera. Datorren igandean, Sorabillako jaien baitan jokatu da lehiaketaren finala. Une honetan, Buruntza doa lehena, eta Sorabilla bigarren.



Sorabillako Arkaitz Amenabar eta Daniela de la Rosa andaluziarra karretilla eramatearen proban. **AIURRI**



Goiburuko Iker Mujika mendi lasterketetan bezain bizi ibiltzen da zaku lasterketan.



Arantxa Letamendi toka proban, Etxeberrieta auzoa ordezkatzuz. **AIURRI**



Lagun kuadrilla Upategin, bertako Ixidro eta Imanol Ansa anaiekin eta Esher Iasarekin.



Joxe Muñoaren bordan, haimaketakoaz gozatzen.



Elizagarate Txiki baserrian, oilasko biltzaileak dantza saioa egiten.



Urki dantza taldekoak eguzkipean dantzan aritu ziren.



Buruntzako kideei begira egin zuen dantza Urkiko kideak. AIURRI



Aitor Sarriegik eta Aitor Mendiluzek meza aurretik egin zuten saioa.

PLAZAOLA NATUR BIDEKO MARATOIA

PLAZAOLA

NATUR BIDE BEREZIA ETA NORTASUN BEREZKOAREKIN

MARATÓN

VÍAS VERDES

42K M - 26KM - 10KM - V1A V3RD3 PL4Z40L4

42K: LEKUNBERRI - ANDOAIN

26K: LEITZA - ANDOAIN

10K: ANDOAIN - ANDOAIN *

* Aurten lasterketa berri bat:
10km Andoain-Andoain

2019KO IRAILAK 15

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Navarra
Gobierno

LEIZORRI UROLA

LARRAURI UROLA

LIZASOAIN UROLA

MENDAKETA UROLA



AIURRI

Eskuz binakako finala Goiburun

Uztailean Andoaingo Gaztetxeak antolatutako binakako pilota partidez gozatu ahal izan zen. Finalean, Jon Jauregi eta Lontxo Santa Kruz gailendu ziren Julen Loidi eta Aitor Amondarainen aurka (22-18). 3. postuan Jon Irazu eta Asier Iraola sailkatu ziren. Eta 4. postuan, Aritz Eskudero eta Iñaki Egues.



AIURRI

3x3 saski txapelketa

Joan zen uztailaren 24an Andoaingo Gaztetxera gerturatu zirenek musikaz, saskibaloiaz eta txapelketaren emozioaz gozatzeko aukera izan zuten. Txapelketari dagokionez, 3. postuan Geriatrik taldea sailkatu zen. 2. postuan, berriz, Katalina Wildcats. Irabazlea Iurra Team taldea izan zen.



AIURRI

Binakako pala txapelketa

Goiburu jaietan pala txapelketako finalak jokatu ziren. Emaitzak hauexek izan ziren: Emakumeetan, Edurne-Garbiñe 22-13 Kristina-Amaia. Mutiletan, berriz, Eskudero I-Otermin 15-22 Loidi II-Asier. Finalen aurretik, mutiletan, 3. eta 4. postuak: Beloki-Urruzola 22-20 Iradi-Agirre.

San Roke igoera

Buruntza auzoko jaietan antolatzen den mendi lasterketan 65 korrikalarik ibilbide malkartsuari egin zioten aurre. Ohi bezala, Gaztañaga sagardotegitik abiatu eta San Rokeko aterpean amaitu zen, 11,5 kilometroko ibilbidea osatu eta gero



Zaletuen animoak ez dira falta izaten Buruntzako mendi lasterketan. Irudian, Nagore Arizaga helmugara iristen. AIURRI

SAILKAPEN OROKORRA BURUNTZA. 2019-8-15

- 1. Aitor Regillaga Tolosa 55:16
- 2. Jon Ugalde Andoain 55:43
- 3. Aritz Mujika Andoain 56:55

- Neskak:
- 1. Sara Alonso Donostia 1:06:33
 - 2. Lourdes Colomo Zizurkil 1:08:09
 - 3. Marina Gonzalez Irun 1:12:01

- Sailkapena:
- 5 Asier Rajado Andoain 58:55
 - 11 Iker Mujika Andoain 1:02:40
 - 14 Asier Ceballos Andoain 1:04:58
 - 15 Axier Etxeberria Andoain 1:05:30
 - 17 A.Etxezarreta Andoain 1:06:00
 - 19 Edu Portillo Andoain 1:06:28
 - 24 Mikel Eguren Andoain 1:08:30
 - 25 Igor Esnaola Andoain 1:08:44
 - 29 J.M.Flamarique Andoain 1:11:40
 - 34 Nagore Arizaga Andoain 1:12:35
 - 36 Daniel Gonzalez Andoain 1:14:13
 - 37 Alf.Rodriguez Andoain 1:14:28
 - 40 P.Juanikorena Urnieta 1:16:14
 - 43 P.De Godos Andoain 1:17:17
 - 45 A.Gaztañaga Andoain 1:19:12
 - 50 M.Fernandez Andoain 1:20:37
 - 51 Iñigo Camacho Andoain 1:20:44
 - 52 Patxi Nieto Andoain 1:21:18
 - 54 Luis Gorospe Andoain 1:22:43
 - 55 Mikel Camacho Andoain 1:22:45
 - 56 Itziar Urdapilleta Andoain 1:22:55
 - 61 Iñaki Arruti Andoain 1:27:00
 - 63 Iker Etxeberria Andoain 1:27:22
 - 65 Jon Azaldegi Andoain 1:31:50
 - 67 Idoia Esnaola Urnieta 1:44:08



Aurtengo podiuma, Regillaga eta Alonso irabazlearen txapela jantzita. AIURRI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Malkar krosa Goiburun

San Esteban egunarekin bat eginez antolatu zuten Goiburuko mendi lasterketa. Leitzarango bailaran zehar, hamar kilometroko ibilbide gora-beheratsuari egin behar izan zioten aurre. Pelaez andoaindarra eta Kortazar durangarra izan ziren azkarrenak

SAILKAPEN OROKORRA
GOIBURU. 2019-8-03

1	Ekaitz Kortazar	43:26	Durango
2	Raul Gomez	43:37	Lasarte
3	Unai Arroyo	44:01	Tolosa
5	Aritz Mujika	46:39	Andoain
7	Haritz Zubillaga	47:30	Urniet
8	Asier Rajado	47:41	Andoain
11	Vanessa Pelaez	48:50	Andoain
14	Iker Mujika	49:59	Andoain
15	Antonio Jimenez	50:39	Andoain
16	Ivan Piñon	50:58	Andoain
20	Asier Ceballos	52:00	Andoain
22	Iñigo Martinez	52:22	Andoain
26	Mikel Eguren	52:51	Andoain
27	Richar Huerta	53:13	Andoain
30	Josu Arregi	54:10	Andoain
32	Aritz Iginitz	54:15	Andoain
35	Igor Esnaola	54:54	Andoain
36	J.M.Flamarique	55:40	Andoain
38	Iñosken Mujika	56:31	Andoain
39	Alfredo Rodriguez	56:49	Andoain
42	Urko Otaño	57:24	Andoain
43	Iñaki Blanco	57:29	Andoain
45	Raul De Godos	57:36	Andoain
46	M.Gurrutxaga	57:45	Andoain
47	J.Barandiaran	57:48	Andoain
48	Iker Ipintza	57:49	Andoain
49	Nagore Arizaga	57:55	Andoain
51	Unai Maiza	58:53	Andoain
53	Angel Carrasco	1:00:06	Andoain
54	Alex De Lucas	1:00:39	Andoain
55	Urko Cisneros	1:00:49	Andoain
59	Iraitz Irigoyen	1:03:32	Andoain
60	Antonio Tena	1:03:33	Andoain
62	Iñigo Camacho	1:04:16	Andoain



Haritz Zubillagak lasterketa bikaina egin zuen. AIURRI



Emakumezkoen mailan lehia handiko lasterketa izan zen. AIURRI

"Mendira jotzen dut ahal dudanean"

VANESSA PELAEZ EMAKUZMEKOEN LASTERKETAKO GARAILEA

Azpimarratzekoa da Vanessa Pelaez Andoaingo gazteak lortutako lehen postua. Errepidean emaitzak onak lortu izan dituen arren, mendia du gogoko Pelaezek, eta azken urtetan hainbat lasterketa irabazi du. Batik bat, Euskal Herrian zein Kantabrian. Helmugan Aiurri aitortu zionez, "Mendira jotzen dut ahal dudane gehienetan. Hor gozatzen dut gehien, eta gainera, egundoko giroa topatzen dut lasterkarien artean. Egun,

Kantabrian bizi naiz, baina Andoainera etortzen naizen aldiro, Buruntza aldera abiatzen naiz entrenatzera. Akaso, jendea, mendi inguru horrek ez du gehiegi erakarriko, harrobi zakarra dela eta, baina ni hortik ibiltzen naiz beti; bi alditan edo gehiegotan egun berean igo eta jaisteko gai naiz. Aurten pena handia daukat, ezingo baitut parte hartu abuztuaren 11n San Roke jaien baitan bertan ospatuko den mendi krosean".



AIURRI



AIURRI

Roberto Cabrejas memoriala

SAILKAPEN OROKORRA
ETXEBERRIETA. 2019-7-31

1	Oscar Zalacain	21:21	Donosti
2	J.Ander Cabero	21:25	Tolosa
3	Aritz Mujika	21:26	Andoain
4	Juan Luis Gomez	21:56	Urniet
5	Javier Menta	22:12	Andoain
9	Edu Portillo	23:16	Andoain
10	Josu Arregi	24:51	Andoain
20	Axier Etxeberria	25:44	Andoain
21	Javier Ruiz	25:45	Andoain
23	Martin Askarai	26:03	Andoain
24	J.M. Flamarique	26:04	Andoain

26	Diego Barrasa	27:30	Andoain
28	Gustavo Marques	28:34	Andoain
30	Enrique Miguel	29:07	Andoain
32	Nagore Arizaga	29:18	Andoain
33	Almudena Ramos	30:10	Andoain
34	Manuel Villegas	30:10	Andoain
35	Rodolfo Parra	30:29	Andoain
36	J.L.Hurtado	30:29	Andoain
38	Eduardo Parra	31:30	Andoain
40	Lorea Barrante	36:09	Andoain
41	Iñaki Barrante	36:09	Andoain
42	Raquel Conde	37:57	Andoain
43	Nikolas Urrutia	39:46	Andoain



AIURRI



AIURRI

Gabirondo Euskadikoan

Julen Gabirondo urnietarrak etsipenez hitz egin zuen Euskadiko sega txapelketako sari banaketa ekitaldia eta gero. Epailiek zigortuta, txapeldunorde izan zen uztailaren 28an Asteasuko Bulanoko zelaietan jokaturako Euskadiko finalean. Bere adierazpenak aiurri.eus gunean aurki daitezke.

Xabier Lasa ANDOAIN

Gazteleku pilota eskolakoak dira biak; poliki aritzen dira palan, eta jada aurten hasiak dira nabarmentzen: Gipuzkoako txapela jantzi dute larruzko modalitytatean 22 urtez azpikoen mailan, eta Iturzaeta Memorialeko finalera iritsi dira. Hain zuzen, larunbat honetan final horren errebantxa jokatu dute Sorabillako frontoian. Hiru urte dira bikote gisa jokatzen hasi zirela txapelketan, Poncek adierazi duenez. “Urtez urte hobetzen ari gara, eta badaukagu zer ikasia eta zer hobetua oraindik, baina inola ere ez genuen espero finalera iristea; ezustekoa izan zen guretzat eta gainerako jokalarientzat. Izan ere, palan bikain aritzen den jendeak parte hartzen du bertan. 22-16 galdu genuen Loidi anaien aurka, gogorak dira biak ere, eta larunbatean euren nagusitu beharko lirateke normalean. Baina ez diegu erraz jarriko”.

Mujika eta Ponce umetan Iturzaeta memorialeko txapelketako ikusle izatetik eta bertako jokariak mirestetik, finala jokatze-ira iritsi dira. Ametsa, egia bihurtu zaie, Mujikak aitortu duenez. “Gaztetxoak ginenean frontoiko bazter batean partiduei begira jarri, eta Andoni Alvarez, Iñaki Arruti, Loidi eta Eskudero anaiak eta besteak miresten genituen; egunen batean horiekin joka genezakeela uste genuen”.

Larruzko palako eta pala motzeko lehiaketa ofizialetan Arrate frontoian jokatzen duten arren, Sorabillako frontoian teniseko pilotarekin jokatzeak baduela xarma berezia adierazi dute biek ere. “Gure jolas-lekua izan da txiki-txikitatik. Hor hezi gara kirolari gisa. Ordu mordo sar-tu dugu bertan, eta badaukagu



Xabier Mujika eta Koldo Ponce auzoko gazteak, larunbatean jokatu den Iturzaeta memorialeko errebantxaren zain. AIURRI

Hastear da jaia, Sorabillan

Larunbat eta igande honetan Sorabilla jaietan murgilduko da. Xabier Mujika eta Koldo Ponce Sorabillako bi gazte dira, eta modu berezi-berezian ospatuko dituzte bertako jaiak aurten. Noiz iritsiko irrikatan daude

motiboak harrizko frontiseko zulo guztiak ezagutzeko eta erdiko matxoiari esker egin litezkeen hiru paretekin bihurriketietan aritzeko”.

Herri kiroletan, jokalaria

Sorabilla auzoko taldea Andoaingo auzoen arteko herri kirolen lehiaketan partaideetako bat da. Biak animatu izan dira zenbait jokoetan parte hartzera, Xabierrek gogoratu duenez: “Goiburuko jaietan traktorea arrastaka eramatea egokitu zitzaigun, eta

Buruntzan, berriz, tokan aritzea. Sorabillan emozioak gainezka egin dezake, ligaren amaiera jokatu baita bertan; soka-tirak eta lokotsa biltzeak erabakiko dute nor den aurtengo irabazlea”.

Jokoan ez ezik, lanean

Antolakuntzan lanean jardun beharko dute ere: “Gaztelekuk Jai Batzordearekin elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu du, eta batean eta bestean lanean aritzea egokituko zaigu, karparen muntaietan, afaria zerbitzatzen...”.

Xabierrek eta Koldok Sorabillako jaiak berta-bertatik bizi izan dituzte jaio zirenetik kasik, eta horrexegatik pena handia hartu zuten Jai Batzordeak antolakuntza uzteko asmoa zuela entzun zutenean. “Akaso, egunen batean, auzoko gazteei tokatuko zaigu pausoa ematea; geroak esango du, denboraz gain lanerako gogo handia eduki behar baita. Egia esan, auzoan ez dago gure adineko gazte askorik, beste laupabost besterik ez”.

Bi egunetako Egitaraua

Irailak 7, larunbata

- 18:00** Txupinazoa, suziria eta kanpai errepika.
- 18:00** Ate ireki jardunaldia, Erretore Etxean.
- 18:00** Iturzaeta Memorialeko errebantxa: Garbiñe-Aloña / Itsasne-Irati. Loidi I-Loidi II / Koldo-Xabier
- 20:30** Zikero jatea. Ondoren, Los Rubi.
- 02:00** Txokolatea eta bizkotxoak.

Irailak 8, igandea

- 11:30** Meza Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren, hamaiketako.
- 17:00** Trikitilariak, Eider eta Lierni Tolosa.
- 17:30** Andoaingo auzoen arteko herri kirol lehia. Ligaren amaiera.
- 18:30** Sagardo dastaketa kantu-jira taldearen laguntzaz. Sagardo dastaketa.
- 22:00** Jaien amaiera.
- Gautxoria bus zerbitzua**
- 22:00-02:00** Bus zerbitzua larunbat gauean.
- 20:30-22:30** Bus zerbitzua igande iluntzean.

Sorabilla auzoa, 218
20140 Andoain
Tel.: +34 943 30 40 70
Faxa: +34 943 59 41 31
info@itasa.es


ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Onintza - Ainara
Abuztuaren 2an
Onintzak 3 urte
bete zituen eta
hilaren 10ean
amatxo Ainarak
35. Zorionak bie!
Etzekoak.



ANDOAIN
Nora
Abuztuaren 16an
Norak lehen
urtetxoa bete
zuen. Muxu
potolo bat.
Amatxoren
kuadrilakoak.



ANDOAIN
Enara Ichaso Ventanas
Abuztuaren
15ean urteak
bete zenituen.
Dagoeneko 8!
Muxu potoloak.
Etzekoak.



ANDOAIN
Garazi Uri
Amondarain
Abuztuaren 13an
6 urte.
Zorionak,
etzeko
guztion
partetik.



ANDOAIN
Leire Núñez Larrea
Abuztuaren 7an
13 urte bete
zenituen.
Muxu handi bat
denon partetik.
Zorionsua izan.



ANDOAIN
Izaro eta Mikel
Zorionak zuen 11.
urteurrenean.
Zorionsu izan
beste hainbatetan,
etzeko denak eta
zuen bi
moxolitoak.



URNIETA
Lizar
Datorren irailaren
9an 3 urte beteko
ditu Lizarrek.
Hiru urte!!!
Ondo pasa eguna,
etzeko guztiekin
batera.



URNIETA
Praxku eta Miren
Zorionak Elutxeta baserriko Praxku Urruzola
eta Miren Ansari irailaren 9an beteko duzuen
62. urteurrenagatik. Eskerrik asko guztiagatik
bikote.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 7 eta igandea 8
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoain.

URNIETA
Larunbata 7 eta igandea 8
URRUTIA-MARTIN: Etxeberri, 1.
943 557 738. Florida, Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 5

ESKUALDEA Helduen eskola
Izena emateko aukera zabalik
Hernanin (943 335 318) eta
Andoainin (943 304 021).
Matrikula egiteko epea zabalik.

ESKUALDEA Euskara
AEK euskaltegietan matrikula zabalik:
Andoain, 943 591 704.
Urnieta, 662 338 747.

URNIETA Udal ikastaroak
Izena emateko aukera zabalik
Sarobe eta Lekaio.

OSTIRALA 6

URNIETA Elkarretaratzea
47ak herrian ekimena, Amaia Esnal
eta Kudu herrikideekin elkartasunez.
19:00, Zubitxo plaza.

LARUNBATA 7

ANDOAIN Sorabillako jaiak
Egitarau osoa, 14. orrialdean.

IGANDEA 8

ANDOAIN Sorabillako jaiak
Egitarau osoa, 14. orrialdean.

ASTELEHENA 9

URNIETA Gaztelekua
Ohiko ordutegiarekin zabalik.
Gaztelekua eta informazio puntua.



Txapelketaren aurkezpena, Asteasun: Saroi Jauregi, Pili Legarra, Maria Jose Telleria.

ESKUALDEA Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa
Saio guztietako sarrerak eta bonoak salgai daude bertosarrerak.eus
webgunean. Irailaren 7an aurkezpen ekitaldia egingo dute, Asteasun.
Irailak 14, larunbata. Txapelketaren hasiera. Oñati.

ASTEARTEA 10

ANDOAIN Odol-ematea
Odol-ematea Andoainin.
18:30-20:30, Anbulatorioa.

OSTEGUNA 12

URNIETA Hitzaldia
47ak herrian ekimena, Amaia Esnal
eta Kudu herrikideak hizlari.
19:00, Lekaio.

OSTIRALA 13

URNIETA Jaiak
Urnietako auzoan jaiak, ostiralean eta
larunbatean. Egitaraua 16. orrialdean.
18:30, Txupinazoa. Etxeberri plaza.

LARUNBATA 14

ANDOAIN Kalegiroan
"Chef nature" antzerki emanaldia.
18:00, Zumea plaza.



URNIETA.EUS

Trankaxko paisaiaren aldaketa

Udalak urnietarren artean zabaldu duen galdetegia erantzuteko aukera
zabalik dago, datorren irailaren 20a bitarte. Helburuetako bat Trankaxko
erreka paisaia aldetik hobetzea da. Ergoien industrialdetik hasi, herrian
barrena igaro eta Hernaniko muga dagoen errotarainoko ibilbidean.



URNIETAKOUDALA

Edukiontzi marroia landagunean

Urnietako landagunean edukiontzi marroiak ipini dituzte. Herrigunean bezala,
txartela erabili beharko da. Etxeetan edo jatetxe eta sagardotegietako
sukaldeetan sortzen den organikoa bota daiteke, eta ez gainerako
jardueretatik sortzen diren hondakinak. Egunero irekitzeko aukera dago.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





Pou anaiak.

Pou anaiak Urnietara datoz

Erredakzioa URNIETA

Eskaladan mundu mailako erreferentzia diren Pou anaiak Urnietan izango dira datorren irailaren 23an. Mallorca, Andeak eta Himalaya aldeko kirol jardueraren berri emango dute, hitzez eta irudiz. 19:00etan hasiko da, Saroben. Zanpatuz taldeak antolatu du, Urnietako Udalaren laguntzarekin.



Patata tortila lehiaketa, iazko jaietan. AIURRI

Etxeberri auzuneko jaiak

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, Urnietan ospakizun ezberdinak kateatzen dira. Sanmielak iritsi aurretik, Etxeberri plazako bizilagunek auzoko jaiak ospatuko dituzte irailaren 13an eta 14an. Dagoeneko egitaraua aurkeztu dute

Egitaraua

Irailak 13, ostirala
18:30 Txupinazoa.
19:00 Apar festa.
20:00 Musika emanaldia:
Sara Graia & P.J.
Kahuna.

Irailak 14, larunbata
11:30 Ginkana.
12:00 Zumba, Virginia
Francorekin.
13:30 Bazkari herrikoia.
Txartelak irailaren
10a baino lehen
eskuratu behar
dira.
15:30 Eskulanak.
16:30 Bingoa.
18:00 "Haiek naiz"
ikuskizuna, Rojo
telon konpainiarekin.
19:00 Patata tortilla
lehiaketa.
21:00 Afari herrikoia.
22:30 DJ Katxorro.
Etxeberri talent
lehiaketa.



ESPAINIAKO VUELTA AIURRI.EUS | @aiurri



UDAL IKASTAROAK URNIETA 2019-2020

LEKAIKO KULTUR ETXEA HELDUEN IKASTAROAK

- Joskintza I, II eta III
- Amigurumi
- Zur taila
- Eskulanak
- Marrazketa eta pintura

HAURREN IKASTAROAK (euskaraz)

- Argazkilaritza (8 urtetik gora)
- Eskulanak (+5 urte)
- Marrazketa eta pintura (+5 urte)

SAROBEN HELDUEN IKASTAROAK

- Yoga
- Pilates
- Gimnasia hipopresiboa
- Bizkar eskola

HAUR ETA GAZTEEN IKASTAROAK

- Gazte funky

ANTZERKI TAILERRA

KIROLDEGIKO IKASTAROAK

- Spinning
- Tonifikazioa
- 3. adina
- Zumba
- Fitness aholkularitza

**Animatu eta izena eman
Lekaioko, Sarobeko,
edota Kiroldegiko
ikastaroetan.**

IZEN-EMATEAK

- Bertan: San Juan plaza
- Sarobe AEG: Iurramendi, 2
- Udai kiroldegia: Pintore, z/g

